



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2014ko MAIATZAREN 6an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2014ko maiatzaren 6an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Onintza Gorostidi Murua
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Leire Otegi Elola
Koldobika Jauregi Zinkunegi

Bere ezin etorria azaltzen dute: Uxue Etxebeste Eizagirre.

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
2014ko martxoaren 25ean egindako ohiko bilkuraren akta.
2014ko apirilaren 29an egindako ez-ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Oilategitik Kultur Elkarteak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 5. J.I. Jaunak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 6. Alkizako Herri Eskolak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 7. Tolosaldeko Landa Garapen Elkarteari "TOLOMENDI"-ri 2014 urteari dagokion ekarpena burutzea, hala bada.**
- 8. Beste batzuk.**
- 9. Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENENGO PUNTUA **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2014ko martxoaren 25eko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- 2014ko apirilaren 29ko ez-ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Akta Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

14/2014 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 3koa, I.A. jaunari isuna jartzea, pinudi bat atera duelako herri bidea erabiliz, Udaleko baimenik gabe, ebazten duena.

15/2014 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 29koa, J.M. jaunari, pinudia atera behar duenez, hau garraiatzeko herri bidea erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

16/2014 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 29koa, J.L.B. jaunari, pinudia atera behar duenez, hau garraiatzeko herri bidea erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

17/2014 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 5koa, Faktura txikien zerrenda onartu eta bere ordainketa burutu dadila agintzea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

- ALKORA	977,20€
- LABUR	202,15€
- IZADI	152,94€
- IZFE	1.686,95€



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- IZFE	1.686,95€
- ARIZMENDI	3.475,12€
- IWD WASTE	118,58€
- SGS	196,96€
- ARGITU ASESORES	156,50€
- BULEGOAK	275,05€
- TOLOMENDI	122,40€
- BANATZAILEA ELERTZALE	230,68€
- AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA	15.000,00€
- AUDAX	192,29€
-AUDAX	582,66€
- EUSKALTEL	132,30€
- MOVISTAR	204,52€

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **25.393,25** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

OILATEGITIK KULTUR ELKARTEAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Oilategitik Kultur Elkarteak eginiko eskaeran dioena, hau da, aurtengo alea ateratzeko zuten diru fondoa agortu egin zaiela dirurik ez dutelarik aurrekontua osatzeko, horregatik Udalari 2.000 eurotako diru-laguntza eskatzen die, euren jarduerarekin jarraitu ahal izateko.

Gaia azterturik, Jose M^a Aranzabe zinegotziaren abstentzioarekin, Udalbatzak gehiengoaz, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Oilategitik Kultur Elkarteak eginiko eskaera onestu, hau da, euren aldizkaria atera ahal izateko Alkizako Udalak 2.000 eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: 2.000 eurotako gastua onestea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: Oilategitik Kultur Elkarteari jakitera ematea, Udalak emandako diru-laguntza zuritu egin beharko duela, dagozkion gastuen berri Udal honi emanaz.

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri Oilategitik Kultur Elkarteari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

J.I. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik J.I. jaunak eginiko eskaera, non azaltzen duen, Igaranzabal baserriko ur kontadorea, Iribiti baserriko soroan dagoena, etxe ondoan jartzeko eskaera egiten duela, batetik bere jabetzako ez den lursail batean dagoelako eta bestetik akzesibilitate arazoak dauzkalako bertaratzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.I. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, Igaranzabal baserriko ur kontadorea baserri ondoan jartzea.

BIGARRENA: J.I. jaunari jakinarazi, Igaranzabal baserriko, Iribiti baserriko soroan kokaturik zegoen ur kontadore arteko ur hodia, Udalak bere gain hartuko duela (azpiegitura bere gain hartuz) eta bere ordeaz, urtean zehar zehaztuko duen Tasa bat aplikatuko diola J.I. jaunari.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri J.I. jaunari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO HERRI ESKOLAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako herri eskolak eginiko eskaera, non azaltzen duten Eusko Jaurlaritzatik diru murrizketak direla eta 2013 ko ekainean eskolako OOGk erabaki zuela hainbat neurri hartzea, hala nola, kuotak igo, hainbat irteera bertan behera uztea, igeriketa ikastaroa bi urtez behin egitea etb. Horregatik Udaletxeari diru-laguntza eskaera egiten diote, Eskolako klaustroak estimatu duen diru kopurua 2.500 eurotako izanik.

Gaia azterturik, bertaratuek aho batez

ERABAKITZEN DUTE



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENA.- Alkizako Herri eskolari 600.-eurotako diru-laguntza ematea, burutu behar dituzten ekintzak finantzatzen laguntzeko.

BIGARRENA.-600,00eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA.- Alkizako Herri eskolari jakinaraztea, Udalak emandako diru-laguntza zuritu beharko duela, Udaletxe honetan izan dituen gastuen berri emanaz.

LAUGARRENA.- Erabaki hauen berri Alkizako Herri Eskolari jakinaraztea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

TOLOSALDEKO LANDA GARAPEN ELKARTEARI “TOLOMENDI”-ri 2014 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Landa Garapen Elkarteak- “Tolomendi-k” aurkeztutako idatzia non 2014ko apirilaren 15ean ospatutako Batzar Orokorrean 2014 ekitaldirako Elkartearen aurrekontua onartu zela jakinarazten den.

Ikusirik 2014 ekitaldirako onartutako aurrekontuaren arabera Alkizako Udalarari 2.891,48 euro ordaintzea dagokiola.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosako Landa Garapen Elkarte-Tolomendiri 2.891,48 eurotako ekarpena burutzea.

BIGARRENA.- 2014 urteko udal aurrekontu orokorrean kreditu nahikoa aurreikustea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

BESTE BATZUK

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

8.1. ALKIZAKO “TXABOLA” ERAIKINAREN TEILATUAN KONPONTZE LANAK EGITEKO BAIMENA ESKAERA, E.O.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik, E.O. andreak eginiko eskaera, non Alkizako Txabola eraikinaren teilatuan konpontze lanak egiteko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik 2014ko maiatzaren 6an, Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean dioena:

“E.O. andreak, “Txabola” izeneko eraikinaren teilatuan konpontze lanak egiteko baimena eskatzen du, lanen aurrekontua aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

Aurkeztutako idatziaren arabera, eraikinaren teilatuaren konponketa, gaur eguneko amiantozko xaflak, teila koloreko txapa arinez ordezkatzeari izango da. Lan hauen aurrekontua BEZ-a gabe 7.185,39€-koa da.

Alkizako Hiri antolaketako 6º artikulua, egun dauden mota guztietako eraikinen kanpoaldeko itxuraren aldaketek hirigintza lizentzia behar dutela esaten du. “Txabola” eraikina Alkizako lur ez hiritargarran kokaturik dago, bereziki Erabilerarik Esleitu Gabeko lurrian. Arau subsidiarioen arabera eraikinak ez du inolako katalogazio edo babes berezirik.

Alkizako lur ez hiritargarriaren araudiaren 3.2 artikulua arabera, mota hontako teilatuen akabera, zeramikazko teilak ala txapa konformatu eta lakatu gorria izan beharko da.

Teilatuaren ordezkatzeari baimengarri izateko, eraikuntzak gaur egungo bolumen berdina mantendu beharko du.

Amiantozko xaflak jasotzean, ingurugiro eta osasuneko araudiek esaten dutena jarraitu beharko da, ala nola, 112/2012-ko ekainaren 26-ko dekretuaren 9º artikulua dioena:

“9. artikulua.– Obra txikietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak ekoizten dituzten eta haien jabe diren pertsonen betebeharrak.

Obra txikietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak ekoizten dituzten eta haien jabe diren pertsonen betebeharrak hauek dituzte:

a) Hondakinak ekoizleek, edo, hala dagokionean, haien jabe direnek, jatorrian bertan bereizi behar dituzte obra txikietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak, honako hiru frakzio hauetan, gutxienez:

1.– Harrizko hondakinak: adreiluak, hormigoia, baldosak, harriak eta arroka (sabai aizunen igeltsua, moldurak eta panelak izan ezik, harrizko gainerako materialen zenbait ustiapen eragozten baitituzte).

*2.– Hondakin arriskutsuak: **amiantoa**, pinturak, detergenteak, itsasgarriak, erretxinak, gehigarriak eta abar.*



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

3.– Hondakin ez-arriskutsuak: beira, zura, metalezko hondakinak, PVCzko elementuak, bestelako plastikoak eta abar.

b) Hondakinen jabe den pertsonak behar bezala bereiziko ditu obrako hondakinok, eta, ondoren, garraiatu eta behar den tokian utziko ditu, haiek sortu diren tokitik hurbilen dagoen garbigunean edo udal-ordenantzek agintzen duten moduan.

c) Ekoizleak eraikuntza- eta eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu behar dizkio Udalari.

Beraz, eskarian azaltzen diren lanak Alkizako araudiarekin bat datozenez, eta aurrekoa betetzen bada, legeztagarriak direla informatzen dut.

**Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*

Lanak amaitzean, eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- E.O. andreak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Alkizako "Txabola" eraikinaren teilatuan konpontze lanak egiteko obra baimena ematea, betiere, 2014ko maiatzaren 6an Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.30 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.